

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Ogasunak 70,3 milioi euro itzuliko dizkie 170.000 zergadun nafarri baino gehiagori

*Gaurtik aurrera eskatu ahal izango da, baita ere, Nafarroako Zerga Ogasunaren sei bulegoetako batean aitorpena egiteko hitzordua.*

Jueves, 10 de abril de 2014

Nafarroako Gobernuak eman du dagoeneko itzultzekoak diren PFEZaren aitorpenaren 122.278 proposamenei dagozkien 70,3 milioi euroak zergadunen banku-kontuetan sartzeko agindua. Zergadunek gaurtik aurrera jasoko dute diru-sartzea euren bankuko kontuetan, nahiz eta epea erakunde bakoitzaren araberakoa izan.

Nafarroako Ogasunak emandako datuen arabera, aitorpenak 170.000 zergaduni baino gehiagori dagozkie, hau da, aurtengo kanpaina aitorpena egin beharko duten 480.000 pertsona ingururen % 35ari.

Nafarroako Zerga Ogasunak iragan apirilaren 4an argitaratu zituen bere [web-orrian](#) 145.751 zergaduni dagozkien PFEZaren aitorpenaren 181.374 proposamen. % 67,42 itzultzeko dira. Gainerako % 35,58ak ordaintzeko dira. Guztira, 40,23 milioi euro ingurukoa da zenbatekoa, eta uztailen eta azaroan zehaztutako epeetan ordaindu beharko dira.

Nafarroako Ogasunak gogorarazi du aitorpenaren proposamena zuzentzat jotzen duten zergadunek ez dutela administrazio-izapiderik egin beharko. Berrito egin nahi dutenek, ekainaren 24a baino lehen egin beharko dute beste aitorpen bat Internet bidez edo Ogasunaren edo erakunde kolaboratzaileen bulegoetan, apirilaren 14tik aurrera. Aitorpena berrito egiten dutenek eta gaur egindako diru-sartzea baino gehiago itzuli behar zaien zergadunei Ogasunak beste diru-sartze bat egingo die aldea itzultzeko.

Bestalde, bihar bidaliko dira orain arte sarean begiratu ez diren aitorpenen proposamenak postaz. Gutunak datorren astean iritsiko zaizkie zergadunei.

**Aurretiazko hitzordua telefonoz edo Internet bidez**



Gaur goizean hasi da aitopena Nafarroako Ogasunaren sei bulegoetako batean egiteko aurretiazko hitzordua hartzeko prozesua ere.

Hitzordua Internet bidez, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webgunean, edo 948 505 505 eta 948 505 506 telefonozenbakietara deituta (astelehenetik ostiralera 8:30etik 17:00etara) har daiteke.

Ogasunak 28.000 hitzordu inguru egingo ditu, aurreko kanpainen antzean. Iruñean (Eskiroz kalea, 20 bis), Barañainen (Comercial etorbidea, 4), Burlatan (Ezkabazabal plaza, 9), Lizarran (Koroazio plaza, 2), Tafalla (Teófono Cortés plaza, 7) eta Tuteran (Antso VII.a Azkarra plaza, 8) dauden bulegoetan egingo zaie harrera zergadunei 8:30etik 14:30era astelehenetik ostiralera apilaren 14tik, astelehena, aurrera. Egun horretan hasiko da kanpaina bulegoetan. Egun horretatik aurrera ere egin ahal izango da aitopena erakunde kolaboratzaileen 19 bulegoetan. 1.200 eragilek jarri dituzte PFEZaren eta Ondarearen kanpainaren eskura.